

# Gorbeian, Igeriñaoko katedral naturalean, mezea izango da San Inazio egunean

## Bizkaian altuerarik handienean ospatuko da mezea Igeriñako ermitan

Katedral naturala dogun Gorbeiaaren magalean, 1.119 metrotara, Bizkaian altuerarik handienean mezea ospatuko da, datorren martitzenean garagarrilaren 31n, eguerdiko 12:00etan, *Elurretako Amaren* basilizaren ondoan. Oraintsura arte domeka eta jai egun guztietan ospatzen zan mezea, uda-sasoian; gaur egun, San Inazio egunean baino ez.

Aurten be abestuko da zeanuriztarrek hango Andra Mariari egindako himnoa, *Andra Maria Igeriñakoa* deritxana. Ospakizunean gogoan izango dira aurten hildako mendigoizale eta artzain guztiak. Amaitzeko, San Inazio martxa kantatuko da eta ondoren, Zeanuriko Udalak ohiko *barauskarri* ezaguna eskainiko dau: ardao zuria eta gailetak. Txistulariek euren doinuekaz alaituko dabe giroa toki



*Elurretako Amaren basiliza*



mezatan, gehienak tontorreko kurutzeari joan etorria egin ostean.

*Meza ospatzen San Inazio egunean*

### Baseliza txikia

Edurretako Amaren basiliza porlanez eginda dago, upel bobeda modura eraikia, hegi harritsu baten sartuta. 3 x 2,225 metro neurtzen dau, eta atean jarritako burdin hesi batek ixten dau.

1924an, Areatzan abade egoan Eulogio Gorostiaga zeanuriztarrak hauxe idatzi eban, Gurutzi Arregik *Ermitas de Bizkaia* lan eskergan (II. liburukian, 406. orrialdean) gogoratzen deuskunez: “*Baseliza hau oraintsukoa da; bere eskaintza egin zan Arraban egoan beste baten oroigarri, artean zelai honetan sendategi bat egoala*”. XIX



*Gorbeiaiko artzainak Igeriñaoko basilizaren ondoan. 1929ko argazkia*

mendearen amaieran egindako kapera dauka gogoan Gorostiagak, Zeanurin basiliza modura hartu ez zana. Ondoren, joan dan gizaldiaren hasieran bertan behera itxi zan.

Baselizatxo hau benetan txikia zan, barruan bi lagunentzako tokia baino ez egoan-eta. Hori dala-eta —halaxe gogoratzen deusku Gurutzi Arregik— On Benito de Atutxak basiliza handiagoa egiteko baimena eskatu eban “*txangozale eta inguru haretako bizilagun apalentzat*”. Planoak be gordetzen dira Labayru Ikastegian; baita baimen-eskaria eta dirua batzeko propaganda-batzordearen datuak be; baina ahalegina bertan behera geratu zan.

INFORMAZIO GEHIAGO: [www.arratia.tk](http://www.arratia.tk)

Bideo laburrak: <https://youtu.be/9xkXs0z5k88>

<https://youtu.be/IPYxplPSvfU>

## **POBREZIAREN AURKAKO ALDARRIKAPEN OZENA**

Jesuiten fundatzailea, Loiolako Inazio gogoratzen dan egun honetan, Frantzisko aita santuagaz —gaur egungo jesuitarik ospetsuena— bat egingo da Gorbeiaiko ermitan, aita santuak berak deitutako *Poztu eta alaitu* exhortazio apostolikoagaz bat egingo da.

Gai honi buruz bertsolariak egindako bertsoak kantatuko dabez bertaratutakoek. San Inazioaren martxa, Edurretako Andra Mariaren ereserkia, eta *Poztu eta alaitu* bertsoak entzungo dira beraz aurten Gorbeian.

### **Poztu eta alaitu**

Poztu eta alaitu  
arazoak arren  
Jesusi jarraitzeak  
beitu zer dakarren:  
batzuk irain ta guzur,  
guk otoitz ta arren  
zintzoak azkenean  
izango pozarren.

Apal-apal erantzun,  
zabaldu bakea,  
errukiz bizi eta  
justizi gosea,  
gaixoagaz negarrez,  
bihotzez pobrea,  
holan batuko dogu  
Jesusen taldea.

Poztu eta alaitu  
umorez bizitza,  
esperantzaz aguantau  
datorren ekaitza,  
ausardiaz jokatu  
kemena da Hitza,  
askoz hobe taldean  
sakonduz otoitza.



Eskatzeko otoitzak  
jaso konfiantza,  
hurkoa ahaztu barik  
horrek dauka gatzia.  
Eskertzeko otoitzak  
dakar esperantza,  
Jauna goratu daigun  
kanta eta dantzaz.